

# Hiltzeari utzi

TXILLARDEGI



**JAKINA:** erdaraz ez-tzun ohi da, «Que dejen de matar, y problema resuelto. Defendamos nuestras ideas en el marco legal español».

Euskaraz irakurrita: ez beza ETak hil, eta Espainiaren lege-markoaren errespetuan, nahi duguna defendatzeko. Eskolaren alorrean egin dugun bezala: batzuek eskola 'pribatua' nahiago dute, burgeskumeek, eskuindarek, arrazistek, klasistek; eta beste batzuek, herriz, langileek, ezkerterek, desdramatizatzaileek, progreek, eskola 'publikoa' nahiago dute. Askatasun osoaz hauta daitezke orain: bata ala bestea. Alabacien bezalaxe. (Kanbon zer gertatzen den, ez da gure ardurara). «Que dejen de matar». Ez borroka hartura bultzatu zuten arazoan mordoio desageru delako. Dagoen legetasuna onartu behar dugulako baizik.

Hitz batez, orain ez dago oinarri sendorik espainiar legetasuna bete-betean ez ontzat emateko. Espainiartasuna, eta gainerako espainiarrekiko berdintasuna aintzatzotzat hartuz gero, aukera libre.

Bestela esanda: 1839ra itzuliz gero, eta karlistek berek onartu nahi ez zuten 'unidad constitucional' delakoa bedekintzat gero, askatasuna badugu. 'Pública' ala 'Privada'. (Zamorran bezalaxe).

Karelinen ere, 1940an, erriarriaren aldeko super-ezkerterek Bakea aldarrikatzen zuten. Eta Frantzia okupatuan ere Vichy-zaleek Bakea predikatzen zuten. Ez zuten okupazio-arazorik ikusten.

Hemen ez omen dago horrelako okupaziorik, ez herri zapalduak. Espainiartasuna ontzat emanez gero, aukera osoa: 'Pública' ala 'Privada', 'De derechos' o 'de izquierdas'.

Gainerakoak? Auto-Determinazioa? Euskal Herria bere euskal oinarriaren gainean erakitzea? Espainiaren eskubide nazional berberak gozatzeko? Baitsuno narraitzen txorakeriak!

Goardia Zibilak iskitluak atxiki eta gudariak berenak lupuratzeko, horra Bakerako bidea. Pax Hispanica, bai. Baina Pax.

# Sei milioi bortxaketa

XABIER OLEAGA



**KRISTAU** kulturalur —kulturalur ari naiz, ez erlijioaz— hezituen artean erori garenok gaur bukatzen dugun aste honetan Emakume Langilearen Eguna (maiuskulaz jartri behar omen dira singularidadeak) ospatu dugu. Egun horretan berean letra txiki izadzen den titulu baten pean ikusi nuen, egunkari batean (hamar bat begiratu nitegun horretan, ofizioaren gauzak, baina bat bakarrean aurkitu nuen) irakurri nuen honako hau: sei milioi emakume bortxatzen omen dituzte urtean Brasilen eta horietatik erdiak gelditzen dira haurdun. Letra txikiak ziren, benetan, enormidade honen berri emateko.

Nork zioen klase sozialen perfilak aristak galduz doazenik? Nork mundua txarrena ez den sistemapean doanik gaur egun, Berlingo Haresia eroriz geroztik? 'Txarra', arras txarra, kalifikatiboa epeldu dezakeen espresiorik erabili dezakegu, loitsu gabe, mamutuz hori permititu bakarrik ez, ondorioztatu esan beharko genuke, egiten duen sistemari aitxiki-zerako orduan? Ez al du gehiago eskatzen sistema osoaren aldaketa, iraukiketa?

Matxismoa, nagusi izan arren ere gizarte honetan, hangoan eta hemengoan, ez da klabe nahikoa numero horiek esplikatzen. Horregatik aipatu behar da sistema, eta sistema esaten denean faktore produktiboak eta plusbalien banaketa, zentroan. Gero, beste guztiak.

Ez dakit Marx zahararen teoriak bigen-tziarik duen, baina horiek eragin zituen egoerak, krudeltasun osoz darrat gaur bertan ere. Egun singular horretan letra txiki ez zoko bakan batean iragarritako enormidade hori lekuko.

# EL DIARIO VASCO

## EBPren kolpea

Euskal Banku Publikoa sortzeko proiektua baztertzea Jose Luis Larrea Ekonomia eta Haizienda sailburuaren porrot ozena da, baita Euzko Alderdi Jeltzaleak hartutako oso kolpe gogorra ere, ahalegin politiko berezia egina baitzuen iniziatiba aurrera ateratzeko. Proiektuak zuen izazera sinbolikoak areagotu egiten du barregarritzko sentsazio hori baina, bestalde, ezin du ezkutuatu EAJK aldeaz aurretik onartuta zuen porrotat izatea, proiektua nolabaiteko hauteskunde ikuspegi batetik bultzatu eta aurreneko eraso garrantzitsuak gertatu bezain laster gainerik kendu



Uste dut gaur aukeratuko dutela behin-betiko zein izango den beren aurodiputatu.

OROZ / DIARIO DE NAVARRA

baitu. Gaia sortu zenetik bertatik baldintzatuta egon zen Gobernuo kideen arteko desadostasunengatik eta, beste hainbat oztoporen artean, Espainiako Bankuaren kutxa koefizienteak, 120.000 bat milioira irits zitezkeen eta bideragarritasuna garrantzizko zutenak, ez zituztelako bereganatu.

EAJ eta EAren arteko desadostasunak, PSE-EE, PP eta UAren oposizioarekin finantzatu hori abiarazteko bat etorri zirenen artekoak, ez du bakarrik alde bat utzi Euzko Jaurlaritzako sektore nazionalisten proiektu eztabaidatuetan eta baina, orobat, torpedo bat jaurtiki du EAJren eta

EAren artean etorkizunean gerta daitezkeen kooperazioaren flotazio-marraren aurka, hain zuzen ere bi alderdik beren harremanak normalizatzea eta hurrengo legegintzaldian balizko aliantza nazionalista bat lortzeren itunak bilatzea erabakita zutenean.

EDITORIALA

# ZUZENDARIARI

## Euskara-guneak

Azken 3 urteotan, Getxoko Andra Mari Herri Ikastetxean, A ereduko lerro bat ere ez da zabaldu, eta OHKO lehenengo kursoan 8 ikasle baino ez daude, berauetako batek 5 urte dituelarik.

Aipatu egoera, edo antzekoa, Euskal Komunitate Autonomoko eskolatan nagusitzen ari da, Hezkuntza Sailek emandako 93-94 ikasurterako datuen arabera: A ereduko eskolaurtean % 30 besterik ez da matrakulatu.

Logiko deritzugu, zeren eta Euskalerriko guraso gehienek nahia gizarte elebiduna lortzea baita.

Hala ere, badago Andra Mari Ikastetxean gurasoen talde minoritario bat, B eta D ereduko kontrako dena, euskara eta euskaraz irakastearen kontrako, eta, beraz elebidunaren kontrako.

Talde minoritario honek Euzko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko arduradunen artean, oihartzunik ez duela suposatzen dugu, lepoa jarriko ez bagenu ere.

Izan ere, oso susmagarritzat jotzen dugu, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak Andra Mari Ikastetxeari D ereduko 2 lerro eta B ereduko lerro bat eskaintzea, baina eredu guztiak aurreinskripzio guztiak bildu eta Plangintza Unitatera bidaltzeko agintzea, beronek erabaki dezan.

Zergatik ez zaie Getxoko gainontzeko eskolei eredu guztiak aurreinskripzioak bilteza esjitzien?

Zer esango dute guzti honetaz Getxoko Ikastetxe Publikoek?

Zein da helburua, aipatutako Herri Ikastetxei kompetentzia egitea? A ereduko lerroren

bat zabalzea eta, ondorioz, B edo D ereduko baten bat ixtea?

Nor da zirikatzalea? Euskara eta euskaraz irakastearen kontrako guraso talde minoritario, agian?

La denok elebitasunaren aldekoak gara, beraz, gaztelaniaren aldekoak ere bai. Hala ere, baztertutako hizkuntza euskara da, baztertutako giza-taldek euskaldunak, eta ama-hizkuntza erdera izanik euskaraz ere bizi ahal izateko euskara eta euskaraz ikastea erabaki duten giza-taldek dira.

Horregatik, euskaraz ere bizi ahal izateko euskara komunikazio hizkuntza den guneak sortu behar direlako, euskara eta euskaraz ikastea gaztelaniaren ikaskuntza eta erabilera zuzenaren mesede doalako; erabateko gehiengo elebitasunaren aldeko delako,.... Guzti honengatik Hezkuntza Saileko arduradunei Getxoko Andra Mari Herri Ikastetxean A eredurik ez zabalzea eskatzen diegu.

APYMA-ETORKIZUNA GURASO ELKARTEA

Getxo (Bizkaia)

## MaNIPulatuz

Jakingo duzunez, akaso ez, Maltzaga-Urbina autopistaren egitasmoa dela eta, NIP-IGP (Nucleos de Intervención Participativa-Interbenzio Gune Partehartzaileak) modeloa ezarri du Euzko Jaurlaritzak, lan honetan Gizarteaz-LES enpresa kontratatu duelarik.

Joan den urrian sujerentziak aurkezteko buzojak zabaldu zituzten herrietan eta nik, autopistaren kontra gauden bailarako beste hainbat kide bezala, egin beharrekoak egin nituen

nire eritzia azaltzera emateko, Elgoibarko udalarekin zabalduko buzoian nire inpresoa sartuz, sinemeg gutxierekin bazen ere. Geroztik ez nuen inolako erantzunik ez ezta abixurik ere jaso, ondorioz prozesutik eliminatua izan nintzela ulertu nuelarik. Baina hara non Lucio Ugartek —NIPetako zuzendariak— ustegabean deitu zidan iragan martxoak 4ean (NIPen prozesua amaitez gagoenean, bi aste besterik geratzen ez bait dira), nere sujerentzia zerraman papera 'bidean galdu' zenaren berriemateko. Eta NIPen azken txanpan, Elgoibar eta Gasteizen burutuko diren azken saioetan soilik, partehartzera gonbidatu nau.

Sinestu behar ahal dui nire papera, eta Elgoibarko Gazte Asanbladarena ere bestalde, bidean 'galdu' egin zirela? Ez al da bada NIPetan 'teknologiarik aurreratua', eza erabiltzen? Ez ote izango Elgoibarko udalarekin berri ere bideak moztu ditzigula, kasu honetan instituzioek beraien ezarritako mekanismotik baztertzeko? Galdera hauek datozkit burura une honetan.

NIPetiko nire nolabaiteko desadostasuna birbaieztatu besterik ez du egiten gertaera honen Maltzaga-Urbina autopista proiektua onartzina izanik, NIP ereduak egitasmo txiki-txiki, desarrollista eta zentzugabe honen inguruan kontentsua bultzatzea du helburu.

Gauza da, herriro ere, politikariek herriari informazio zabalak eskaini beharrean, gatazka edo konfliktio posibileen baldieze horrelako muntia despifarradoretara jotzen dutela, beraien aurrepigi sasi-omodotratiko garbitzeko, Gauzek berdin —beraien eskuetan— jarrai dezaten maNIPulatuz.

ARANTZA ETXEBERRIA Elgoibar (Gipuzkoa)

# GAIA JARRITA

## Euskal Eskola Publikoaren Festa



Euskal Eskola Publikoa da gure betiko helburu, eta Lasarten bilduko da gaur milaka jende, seguru.

Ekimen hori guk begi onez beti ikusi ohi dugu. Egongo gara aiduru hamar bat ordu inguru, har dezagula eredu.

Izanagatik hutsune batzuk edo zenbait estakuru, gure esku dago, saiatuz gero errez konpon ditzakegu.

RUFINO IRAOLA

# Egunkaria

Batzonk: Patekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: ISAKI URUA

Gereotza: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELI OTAMENDI

Zuzendariorde: LUZIAN ETXEHARRIETA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

Erreklamazio Publikoaren: PUBLICITAS

Capital Hye 1.2a 28020 Madrid w: 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Eredutzeko eta Tallero: ANTZA S.A. Industriadena 01-02 Pabilioa / 20160 Lasarte-Oria w: 37 15 45 / Fax: 36 54 93

Egotezko soziala, Publizitate eta Administrazio: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / w: 46 90 22 / Fax: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / w: 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Iritzi dorrea) / 31011 Iruñea / w: 17 80 78 79 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. ezker. / 48003 Bilbo / w: 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecia 14, 1 / 503 Posta Kutxatua, / 64100 Baiona / w: 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11